

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Jabier Agirre Lasarte

*Donostia,
Gipuzkoa
(1952)*

Aurkibidea



Biografia



Donostian jaioa. Ama donostiarra zuen eta aita Getxon jaioa (guraso gipuzkoarrak zituen arren): Donibane Lohizunen ezagutu zuten elkar, gerrako exiliatu bezala. Aitaren anaia Jose Antonio Agirre Eusko Jaurlaritzako lehendakaria izan zen. Jabier zazpi senidetan zaharrena zen. 3 urtetik 8 urtera bitarte Karmele Esnalen ikastolan ikasi zuen, Artzai Oneko etxe batean. Santo Tomas lizeoan jarraitu zituen ikasketak (lehenengo promoziokoa da). Hantxe eman zituen bere lehen euskara klaseak, 13-14 urterekin, eta gero gau-eskoletako irakasle moduan ere jardun zuen, euskalduntze-alfabetatzean. Medikuntza ikasi zuen Bilbon, eta Antiguako anbulategian hasi zen lanean. Osaba pediatriarekin ere bai ondoren. UZEIrako osasungintzari lotutako hiztegiak egiten hasi zen, 1977an, eta 1983tik aurrera mediku-lana utzi eta euskalgintzari heldu zion bete-betean. Zientziaren dibulgazioa euskaraz egiten ere lan handia egin du, irratian, prentsan zein telebistan (2021ean Elhuyar merezimendu saria jaso zuen). Osasungoa Euskalduntzeko Erakundeko (OEE) lehendakaria da. San Telmo museoan egindako elkarrizketa.

Zintak

DON-209

- **Proiektua:** Donostiako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2021-07-01
- **Iraupena:** 109 min

- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Unamuno, Arianne

Pasarteak

1. Familia, Jose Antonio Agirre lehendakaria tartean, gerrarengatik erbestera

- **Erref:** DON-209/012
- **Iraupena:** 0:02:19. **Hasi:** 00:13:32. **Bukatu:** 00:15:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

Izen-abizenak. Jaioteguna. Familiaren jatorria: gipuzkoarrak ziren aitona-amonak guztiak. Gurasoen familiek gerran alde egin zuten eta Donibane Lohizunen ezagutu zuten elkar; ezkondu eta Donostian jarri ziren bizitzen. Aitaren anaia Jose Antonio Agirre lehendakaria zen; gainontzeko anaiak gudari aritu ziren.

2. Lehenengo jaunartzeko bazkaria Lapurdin

- **Erref:** DON-209/013
- **Iraupena:** 0:02:08. **Hasi:** 00:15:51. **Bukatu:** 00:17:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco

Laburpena:

Lehenengo jaunartzea egin zuenean, familiako bazkaria Donibane Lohizunen egin zuten, osaba bat Hegoaldera etorri ezinda zegoelako.

3. Osaba Jose Antonio lehendakariaren hileta

- **Erref:** DON-209/015
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:19:14. **Bukatu:** 00:20:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Hiletak

Laburpena:

Osaba Jose Antonio hil zenean, zortzi urte zituen. Hiletara joan zen, aita eta osabak hilkutzarekin joan ziren. Gogoan dauzka jendearen errespetua eta tristura.

4. Etxean gerrako kontuen kontakizunik ez

- **Erref:** DON-209/016
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:20:19. **Bukatu:** 00:21:19

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- [Politika](#) » [Gerra zibila \(1936-1939\)](#) » [Gerraren eragina](#)

Laburpena:

Etxean ez du gerrako kontuez askorik entzun, mingarria zelako.

5. Karmele Esnalekin ikastolan

- **Erref:** DON-209/017
- **Iraupena:** 0:05:07. **Hasi:** 00:21:19. **Bukatu:** 00:26:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- [Ohiturak eta bizimodua](#) » [Hezkuntza](#) » [Maisu-maistrak](#)
- [Ohiturak eta bizimodua](#) » [Hezkuntza](#) » [Ikastolak](#)

Laburpena:

Ikastolan ibilitakoa da, bere senide guztiak bezala. Karmele Esnal izan zuen andereño; gela handi batean adin askotako umeak egoten ziren, hirutik zazpi urtera bitartekoak. Karmelek gela nola antolatzen zuen kontatzen du. Matematika oso gauza sinpleekin nola erakusten zien azaltzen du. Nemesio Etxanizekin kankak ikasten zituzten. Ostegunetan Maria Kristina parkera joaten ziren jolasera. Donostiako kantuak eta kontuak ere ikasten zituzten.

6. Familia baten etxean zegoen ikastola

- **Erref:** DON-209/018
- **Iraupena:** 0:02:48. **Hasi:** 00:26:26. **Bukatu:** 00:29:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- [Ohiturak eta bizimodua](#) » [Hezkuntza](#) » [Ikastolak](#)

Laburpena:

Karmele Esnal hainbeste umerekin nola moldatzen zen kontatzen du. Etxebizitza horretan familia bizi zen. Ez da inspekzioekin gogoratzen baina badaki hezkuntza sare formalaren parte ez zela.

7. Karmelerenaz gain, ikastola gehiago baziren

- **Erref:** DON-209/019
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:29:14. **Bukatu:** 00:31:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- [Ohiturak eta bizimodua](#) » [Hezkuntza](#) » [Maisu-maistrak](#)
- [Ohiturak eta bizimodua](#) » [Hezkuntza](#) » [Ikastolak](#)

Laburpena:

Karmele Esnalez gain, bazeuden andereño gehiago gela banatan ikastola muntatuta zeukatenak Donostiako beste zonalde batzuetan. Elbira Zipitriarekin ikasi zuen Karmelek; ezagutu zuen eta zorrotza zela dauka entzuna.

8. Santo Tomas lizeoko lehenengo promoziokoa

- **Erref:** DON-209/021
- **Iraupena:** 0:03:39. **Hasi:** 00:31:40. **Bukatu:** 00:35:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:

Santo Tomas lizeoko lehenbiziko promoziokoa da. Ikastolan erabiltzen zuten euskararen grafia nolakoa zen azaltzen du, batuaren aurretik. Hamahiru-hamalau urterekin uda batez euskara klaseak eman zizkien beste batzuei; Patxi Altunaren metodoa erabili zuen. Lizeoan ikasgai gehienak gazteleraz egiten zituzten, libretik egindako azterketak gazteleraz zirelako; arratsaldetan euskara ikasgaia izaten zuten. Jose Mari Etxebeste, Felipe Urramendi, Mari Karmen Garmendia eta Gaizka Barandiaran izan zituen euskara irakasle.

9. Umetan euskal giro betean

- **Erref:** DON-209/022
- **Iraupena:** 0:03:08. **Hasi:** 00:35:19. **Bukatu:** 00:38:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Umea zenean, bost anaiek eta ikastolako lagunekin euskaraz egiten zuten dena. Etxean ere euskaraz egiten zuten. Donostian orokorrean euskaraz askoz gutxiago egingo zela dio. Erdara kalean ikasi zuen.

10. Euskararik ez medikuntza ikasketetan

- **Erref:** DON-209/024
- **Iraupena:** 0:02:04. **Hasi:** 00:40:32. **Bukatu:** 00:42:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Politika » Euskara eta politika
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Bilbora joan zen medikuntza ikastera eta konturatu zen euskaraz gutxiago egiten zela han. Praktikak egiten ari zela, adineko gizonezko euskaldun batekin komunikatu ahal izateko, medikuarentzat itzultzaile lanak egin zituen. Ikasketak erdaraz ziren erabat. Ikasleen inizatibaz, euskarazko klaseak antolatu zituzten, gau-eskolen antzera.

11. UZEI eta Elhuyar euskara teknikoa sortzen

- **Erref:** DON-209/027

- **Iraupena:** 0:03:17. **Hasi:** 00:46:50. **Bukatu:** 00:50:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen historia

Laburpena:

Medikuntza ikasi zuen garaian, euskaraz ez zegoen materialik. UZEIn egin zuen lanketaz hitz egiten du. Garai hartan apaizek idatzitako gauzak ziren euskarazko bakarrak. UZEIk eta Elhuyarrek modu integralean heldu zioten euskara teknikoa sortzeari.

12. Antiguago anbulatorioan euskaldunen pozerako

- **Erref:** DON-209/028
- **Iraupena:** 0:02:22. **Hasi:** 00:50:07. **Bukatu:** 00:52:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikiak eta sasimedikuak

Laburpena:

Antiguako anbulatorioan hasi zen lanean, ikasketak bukatuta. Eraikina nolakoa zen kontatzen du. Jendeak medikuari errespetu handia zion eta euskalduna zinela ikusiz gero, are eta gehiago. Berorika hartzen zuten bera.

13. UZEIn hiztegi gintzan talde-lanean

- **Erref:** DON-209/030
- **Iraupena:** 0:02:28. **Hasi:** 00:53:48. **Bukatu:** 00:56:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen historia

Laburpena:

Betidanik aritu izan da euskalgintzan. UZEIkoekin lanean hasi zenean, anbulatorioko lana utzi zuen eta osabaren kontsultan jarraitu zuen. Beti taldean lan egin izan du UZEIn. Hiztegiak euskaraz, ingelesez, frantsesez eta gazteleraz egiten dituzte eta lan-taldean egin izan dute beti lan.

14. Osasungoa Euskalduntzeko Erakundeko kide

- **Erref:** DON-209/032
- **Iraupena:** 0:02:16. **Hasi:** 00:57:45. **Bukatu:** 01:00:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen historia

Laburpena:

Osasungoa Euskalduntzeko Erakundeko sortzaileetako bat izan zen eta lehendakaria ere bai. Angel Jaka Gurutzetako gerenteak euskara osasungintzara eraman nahi zuen jendearentzako erakundea sortzeko hazia jarri zuen. Espero zutena baino askoz gutxiago lortu dutela azaldu du.

15. Osasungintza euskalduntzeko oinarritzko lanak egiteke

- **Erref:** DON-209/033
- **Iraupena:** 0:03:57. **Hasi:** 01:00:01. **Bukatu:** 01:03:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Osasungintzan euskararen arloan asko aurreratu dela dio baina Osakidetza eta Osasunbidearekin ez dago gustura, oinarritzko lan asko egiteke daudelako. Langile asko prest dago euskaraz lan egiteko baina ez dizkiete baliabideak eta aukerak ematen. Eskaera badago, baina ez zaio behar bezalako erantzunik ematen. Adibideak ematen ditu.

16. Zientziaren dibulgazioa komunikabideetan

- **Erref:** DON-209/035
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 01:05:39. **Bukatu:** 01:08:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Kultura » Aisia » Hedabideak » Irratia

Laburpena:

Idatzizko lehen kolaborazioa kirolari buruz egin zuen Argiarako. Zientziaren dibulgazioaz zuzeneko programa bat egiten zuen Herri Irratian beste bi lagunekin batera. Izenak ematen ditu. Jendeak osasun arazoei buruz galdetzen zien telefonoz. Gero Euskadi Irratian, Argian eta Elhuyarren aritu izan da zientziaren dibulgazioan.

17. COVID-19ari buruzko osasun gomendioak

- **Erref:** DON-209/037
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 01:09:05. **Bukatu:** 01:10:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak

Laburpena:

COVID-19ari buruzko osasun gomendioak ematen ditu: txertoa eta prebentzio neurriak. Ezer berririk ez duela esango dio.

18. Maria Dolores Agirrerren antzerki taldean

- **Erref:** DON-209/040
- **Iraupena:** 0:02:38. **Hasi:** 01:14:23. **Bukatu:** 01:17:01

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia

Laburpena:

Maria Dolores Agirreren antzerki taldean ibili zen, beste hiru anairekin batera. Antzerki kostunbrista zen; hainbat lan aipatzen ditu. Jarraik antzerki modernoagoa egiten zuen.

19. Maria Doloresekin "Sorgin Zaharra" antzezlan

- **Erref:** DON-209/041
- **Iraupena:** 0:04:40. **Hasi:** 01:17:01. **Bukatu:** 01:21:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia

Laburpena:

Maria Dolores Agirrerekin eta Jose Mari Etxebesterekin ibili zen antzerkian. Maria Doloresen etxean ere egiten zituzten entseguak. Maria Doloresek irratsaioa egiten zuen euskaraz, beste batzuekin. Easo kalean deklamazio akademia zeukan eta ballet eskola bat ere bazegoen eraikin berean. Telesforo Monzonen "Sorgin Zaharra" antzezlanean parte hartu zueneko kontakatu du. Antzezlan Antzoki Zaharrean ematen zuten. Santo Tomas egunean beti izaten ziren emankizunak.

20. Antiguako gau-eskolak

- **Erref:** DON-209/043
- **Iraupena:** 0:03:29. **Hasi:** 01:23:31. **Bukatu:** 01:27:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

Antiguako gau-eskolan aritu zen urte luzez. Talde asko egon ziren. Berak mintzapraktika moduko bat ematen zuen. Auzokoek antolatzen zituzten, eta AEK sortu baino lehen izango zela uste du. Zein lokal erabiltzen zituzten azaltzen du.

21. Maiatzaren 1eko manifestazioan aita atxilotu

- **Erref:** DON-209/051
- **Iraupena:** 0:03:01. **Hasi:** 01:35:58. **Bukatu:** 01:38:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

Maiatzaren 1eko manifestazio batean, aita atxilotu egin zuten eta Martutuneko kartzelara eraman. Errepresioa bazegoela eta giro politikoa gogorra zela badaki, baina umetan ez zen hainbeste ohartzen.

22. Santo Tomas lizeoko sortzaileak

- **Erref:** DON-209/055
- **Iraupena:** 0:02:55. **Hasi:** 01:43:04. **Bukatu:** 01:45:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

Gurasoek euskararekiko hautu politikoa egin zuten eta meritu handia izan zuten. Santo Tomas lizeoaren sorreran Karlos Santamaria eta Joxe Migel Zumalabe egon zirela aipatzen du. Irakaskuntza molde berri baten aldeko apustua izan zen. Zazpi lagun izan ziren lizeoko lehenengo promoziokoak.

23. Lizeoan neska-mutilak elkarrekin

- **Erref:** DON-209/056
- **Iraupena:** 0:01:56. **Hasi:** 01:45:59. **Bukatu:** 01:47:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Gaur egun lizeoa dagoen lekuan urtebete bakarrik egin zuen; aurretik batetik bestera ibili ziren. Liburu guztiak gaztelerazkoak izaten ziren. Euskarazko klaseak arratsaldean jasotzen zituzten eta neskek eta mutilak denak batera egoten ziren gela txikietan. Xabier Otaegi "Txirri" ikaskide izan zuen.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-03-30

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com